



## ■ IPUIN KONTAKETA

### Maite Franko ipuin kontalaria, Liburutegian

Ipuinak entzuteko aukera aparta dute gaur hurrek, Udal Liburutegian. Maite Franko ipuin kontalaria egongo da arratsaldean: 17:30etan, 3-4 urteko haurrentzat; eta 18:00etan, 5-7 urtekoentzat. ||

## ■ HAIDA TABERNA

# Herriko musikarien arteko lehia, Haida tabernaren urteurren oparia

*Banda Lehia antolatu du Haida tabernak, bere 20garren urteurreneko ospakizunen artean. Parte hartzeko, gutxienez taldeko kide bat Hernanikoa izan behar da. Saria, 400 eurokoa.*

HERRIKO musikariak aurrez aurre jarriko ditu Haida tabernak, azaroko eta abenduko ostiral iluntzeetan. 20garren urteurrena bete berri du tabernak, eta zenbait ekintza berezi antolatuko ditu, urte bukaerara bitarte: horietako bat, Banda Lehia. Ostiralero, talde baten kontzertua; eta onenarentzat, 400 euroko saria.

### Izena emateko epea, azaroaren 14ra arte

Lehiaketan parte hartzeko, beharrezkoa izango da, gutxienez, taldeko kide bat hernaniarra izatea. Izena emateko epea zabalik dago honezkerok, eta azaroaren 14a izango da azken eguna. Horretarako, idatzi mezua [haidahop@hotmail.com](mailto:haidahop@hotmail.com) helbide elektronikora.

Guztira, sei bandak hartuko dute parte lehian. Talde gehiago aurkeztuz gero, zozketa bidez erabakiko da zeinek hartzen duen parte: azaroaren 14an bertan egingo da, Haida tabernan, arratsaldeko 20:00etan.

### Musikari gazteei aukera bat emateko asmoa

Herriko musikariei eman nahi die aukera Haida tabernak, bereziki gazteei. Izan ere, lotura estua du herriko bandekin: «aukera gutxi dituzte jotzeko, eta aukera falta horri erantzun nahi diogu, lehiaketa honekin». Hain justu, herriko



Herriko musikari gazteei eman nahi die aukera Haida tabernak, kontzertua eskaini eta ezagutzera emateko.

taldeei galdetu zieten, ea zer iruditzen zitzaion horrelako lehia bat antolatzea: «oso ideia interesgarria iruditu zitzaion».

Talde guztiek daukate tokia lehiaketan: musika estilo guztientzako dago zabalik. Beraz, kolore askotarikoa izango da lehiaketa.

### Kontzertuak, ostiraletan

Sei ostiraletan izango dira kontzertuak, Banda Lehiaren barruan. Gaueko 23:00etan

hasiko dira, eta ordubeteko iraupena izango dute, gehienez. Aurrenekoa, azaroaren 21ean izango da, eta ostiralero joko du talde batek, abenduaren 26ra arte.

Hurrengo egunean, abenduaren 27an, egingo dute sari banaketa, botuak kontatu ondoren. Epaimahaia hiru kidek osatuko dute: Haida tabernakoa izango da bat, eta beste biak, ekitaldiarekin loturirik ez dutenak. Zenbait irizpide baloratuko dituzte,

bandak baloratzeko: aurkezpena, originaltasuna...

### Astean zehar, taldearen aurkezpena

Ostiralean jo behar duen taldea, astean zehar emango du ezagutzera Haida tabernak, Facebooken bitartez. Horrela, taldea aurkeztuko dute: noiz sortu zen, zeinek osatzen duten, jotzen duten estiloa... Eta taldearen bideoak edota abestiak ere jarriko dituzte, kontzertuari sarrera eginez. ||

## ■ EMAKUME ZENTROA

### Feng Shuiari buruz hitzaldia, gaur

Feng Shuiari buruzko hitzaldia emango dute gaur, Elkano 17 Emakume Zentroan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da saioa, eta doan izango da. ||

## ■ UDALA

### Kultura eta turismo batzordea gaur

Kultura eta turismo ohiko batzorde bilera egingo dute gaur, arratsaldeko 18:00etan.

Besteak beste, eztabaidatuko dituzte: emandako dirulaguntzen justifikazioak, eta Artetik elkarte kulturalaren kontratua luzatzea. ||

## ■ DAITEKE

### Pautak test psikoteknikoetan aritzeko

Tailerra berri bat emango dute bihar, Daiteke enplegu zentroan. Test psikoteknikoetan aritzeko zenbait pautak zehaztuko dituzte, goizeko 09:30etatik 11:30etara. Izena emateko, bi aukera daukate interesatuek: [jaionea@daiteke.com](mailto:jaionea@daiteke.com) helbide elektronikora idatzi edo deitu 943 57 54 24 telefonora. ||

## ■ ONGINTZA

### Haurren gurasoek ikastaroa, gaur

Ongintzako Udal Patronatuak antolatuta, haurren gurasoentzako ikastaroak antolatu dituzte asteartean. Azkenurreko saioa izango da gaurkoa, goizeko 11:00etatik 12:30etara, Biterin. Jose Mari Izeta Martiartuk zuzenduko du saioa, eta 0-9 urte bitarteko haurren gurasoei dago zuzenduta. ||

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89      20120 Hernani

**TILIN \* TOLON**  
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK  
KONSULTAK  
☎ 943 55 56 94

Txirita, 10 - HERNANI

**MARI FE**  
ARRANDECIA

NAGUSIA 36      943 550 489

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Aldabe Perkaitezgi 8 (Antziola) 943 336022 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Giro argiarekin jarraituko dugu, baina aurreko egunetan baino laino gehiago izango dira. Temperatura bi-hiru gradu jaitsiko da. Min.12° / Max.24°  
**BIHAR** Goizaldean laino gehiago izango dira, eta baliteke zaparradak botatzea. Eguerditik aurrera, ordea, zenua urdin. Min.12° / Max.24°  
 (euskalnet)

## UDALA PLENOA

# Koxka elkartearen protokoloa onartzea eztabaidagai, gaur

Udaleko plenoa bilduko da gaur, arratsaldeko 19:00etan, 13 puntu eztabaidatzeko. Tartean, Koxkaren protokoloa eta mozio bat.

GAUR bilduko da Hernaniko Udaleko plenoa, arratsaldeko 19:00etan, pleno aretoan. 13 puntuz ariko dira. Tartean landuko dituzte, Koxka elkartearen protokoloa onartzea, uraren kudeaketaren araudia aldatzea eta mozio bat: Konstituzio Auzitegiak Kataluniako kontsulta bertan behera uzteari buruzkoa.

### 2015eko ordenantza fiskalak eta egutegi fiskala

Akta onartu ondoren, bi konturen berri emango du gobernu taldeak: uztailearen 29tik urriaren 23ra arte hartutako ebazpenak; eta 2014ko aurrekontuen exekuzio egoera.

Fiskalitateaz ere ariko dira. Batetik, 2015eko ordenantza fiskalak onartzea proposatuko dute. Eta bestetik, 2015eko egutegi fiskala eztabaidatuko dute.

Uraren kudeaketaren Udal Araudia aldatzeko proposamena ere eztabaidatuko dute.

### Uraren kudeaketaren araudia aldatzeko proposamena

Jarraian, bozkatuko dute ea onartzen den hainbat udal etxebizitza alokairuan jartzeko oinarrien plegua. Uraren kudeaketak hartuko du protogonismoa ondoren: Udal Araudia aldatzeko proposamena eztabaidatuko du plenoak.

### Obra eta zerbitzuetarako protokoloa, desgaitasunen bat dutenei kalte ez egiteko

Koxka elkarteak osatutako

protokoloa onartzea ere bozkatuko du plenoak. Protokoloak zehazten du, Udalak nola jokatuko beharko duen aurrerantzean, edozein obra edo zerbitzu egiterakoan, desgaitasunen bat duten pertsonen kalte ez egiteko.

### Mozioa, Kataluniako kontsultaz

Beste lau puntu ere landuko dira gaurko plenoan: EH Bilduren adierazpen instituzionala, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta; Konstituzio Auzitegiak Kataluniako kontsulta bertan behera uzteari buruzko mozioa; liburu mailegungatik, liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea; eta EH Bilduren agurra eta elkartasuna herri kurduer. ||

## ODOL EMAILEAK

### Merezitako omenaldi bazkaria

Omenaldi berezia jaso zuten Hernaniko odol emaileek, larunbatean. Bazkaltzeko elkartu ziren Urrietako Oianume sagardotegian, eta aurretik, dominak eman zizkieten, odola aldi gehienetan eman duten emailei. Ondoren, mahaiaren bueltan bildu ziren, donante guztiak, bazkari eder batez gozatzeko. ||



## BTT JAITSIERAK

### Xabi Urdanpilleta Euskadiko txapeldun

Denboraldi bikaina, modu bikainean borobildu zuten Urdanpilleta anaiek, larunbatean. Euskadiko Openeko azken proba zuten Galdakaon, eta lider zegoen Aritz Urdanpilleta, 23 urtez azpikoetan. Bigarren izan zen ereñotzuarra, eta puntu gutxiko aldearekin galdu zuen lidertza. Lortu zuten txapelketa juniorrean izan zen, espero ez zutena hain justu. Xabik oso zaila zeukan irabaztea, baina lesio batek lehiatzen kanpo utzi zuen liderra, eta Xabik nahikoa izan zuen akatsik ez egitea, txapeldun izateko. ||

## MERKATARITZA

# Zein da Buruntzaldeako harri bitxia?

Hernaniko lau denda daude lehian, komarkako harri bitxi izateko. Bozkatzeko, aste honetan.

GIPUZKOAKO 10 komertzio harri bitxi izendatuko dituzte, Merkataritza Enpresa Saria; etxearekin edo kulturarekin lotura duten komertzioak izan behar dira, eta komarka bakoitzeko, denda batek jasoko du bitxi izendapena.

Buruntzaldean, Hernaniko lau komertzio daude lehian, 10 bitxiarten sartzeko: Ikusi-Makusi, JF Cocinas, D-

Kora eta Galerías Buen Precio.

### Bozkatzeko aukera, azaroak 2ra arte

Gipuzkoako edozein merkataritari enpresak bozkatu dezake, eta aste honetan bukatzen da epea: [10bitxiak.blogspot.com.es](http://10bitxiak.blogspot.com.es). Bakoitzak, bere herriko edo eskualdeko denda bati eman diezaiolke botoa, eta behin bakarrik bozkatu daitezke. ||

## BARATZA PARKEA

### Batzarra bihar, Biterin

Baratza Parkeak batzarra egingo du bihar, arratsaldeko 19:30etan. Biteriko areto nagusian izango da, eta batzarkide guztiei egin diete deia, batzarrera azaltzeko. ||

## GURE ESKU DAGO

### Azaroak 8ko mosaikoan izen ematea

Azaroaren 8an, mosaiko erraldoi bat egin nahi du Gure Esku Dagok, Zurriola hondartzan. Bertan parte hartzeko, tiketak salgai daude Lurreko eta Oa dendetan. ||

## JABETZE ESKOLA

### Izena emateko azken eguna, ostirala

Jabetze Eskolen barruan, sei ikastaro antolatu ditu Berdintasun Sailak. Izena emateko azken eguna ostirala izango da, urriak 31. Hiru aukera: Plaza Feministako bulegoan, 943 33 70 17 telefonoan edo [maialen-a@hernani.net](mailto:maialen-a@hernani.net) helbide elektronikoan. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


**ESKERTZA**

† **Margarita Gordo Olaizola**  
 ANDREA  
 (Genaro Aguirreraren alarguna)  
 Orain egun gutxi hil zen  
 - Goian bego -

Haren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizuete samin agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorritzenen guztioi ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

**Hernanin 2014ko urriaren 28an**



## IRAGARKI MERKEAK

2 gela alokagai Hernaniko erdigunean. Deitu: 659 363 944

Hernaniko erdigunean pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea eta komuna. Patio irekiera eta oso argitsua. Igogailua eta fatxada berria. Sartzeko moduan, amueblatua. Deitu: 630 227 630

Hernani-Zikuñaga. 100 m2ko pisua salgai. 3 gela eta trastelekua. Kanpoaldera, kalefakzioa eta igogailuarekin. Apartakaleku pribatua. 30 m2ko garajea. 126.000 €. Deitu: 600 595 890

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)